Une honetan, beraz, kultura-ekoizpenak bultzatzeko foru-arauak ditugu hiru lurraldeetan, baina bakoitzak bere diseinua eta ezaugarri propioak ditu. Adibide batzuk emango ditugu. Arabako foru-arauan, esaterako, langile autonomoek pizgarri fiskaletarako aukera dute, eta gainontzeko lurraldeetan, aldiz, ez. Araban eta Gipuzkoan, inbertsioen eta gastuen lurraldetasunari buruzko eskakizuna ez da mugatzen lurralde historikoetara; hau da, Euskal Autonomia Erkidegoko hiru lurralde historikoak hartzen dira kontuan, eta, beraz, kenkariaren portzentajea eta haren aplikagarritasuna zehazteko garaian, Euskal Autonomia Erkidegoan egindako gastu eta inbertsioaren portzentajeari erreparatzen zaio. Hori ez da gertatzen Bizkaian.

En estos momentos, por tanto, contamos con normas forales de apoyo a las producciones culturales en los tres territorios, pero cada una cuenta con diseño y características propias. Pongamos algunos ejemplos. Según la norma foral de Álava, por ejemplo, los trabajadores autónomos tienen acceso a incentivos fiscales, no así en el resto de territorios. En Álava y Gipuzkoa la exigencia ligada al territorio de las inversiones y gastos no se limita a los territorios históricos; es decir, se tienen en cuenta los tres territorios históricos de la Comunidad Autónoma de Euskadi, por lo que a la hora de determinar el porcentaje de deducción y su aplicabilidad se atiende al porcentaje de gasto e inversión realizado en la Comunidad Autónoma del País Vasco. Esto no ocurre en Bizkaia.

Legebiltzarkide gisa dagokidan funtzioa ahalik eta egokien betetzeko eta indarrean dagoen Erregelamenduaren babesean, ondorengo idatzizko galderak egiten dizkiot Ibone Bengoetxea Otaolea Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuari.

Para cumplir lo más adecuadamente posible la función que me corresponde como parlamentario, y al amparo del vigente Reglamento, formulo las siguientes preguntas para su respuesta por escrito a la consejera de Cultura y Política Lingüística, Ibone Bengoetxea Otaolea.

**GALDERAK**

**PREGUNTAS**

1. Lurralde bakoitzak kultura-pizgarri desberdinak izateak eta aldi desberdinetan gauzatu izanak nola laguntzen du kultura-politika koherente eta integral bat egiten?
2. Nola baloratzen du sailak Araban kultura-ekoizpenetarako langile autonomoek pizgarri fiskalak edukitzea eta Bizkaian, aldiz, ez?
3. Nola baloratzen du sailak Gipuzkoan eta Araban kenkarietarako Euskal Autonomia Erkidegoko hiru lurralde historikoak hartu ahal izatea aintzat eta Bizkaian, aldiz, ez?

1. ¿Cómo contribuye a una política cultural coherente e integral el hecho de que cada territorio tenga incentivos culturales diferentes y los haya materializado en momentos distintos?
2. ¿Cómo valora el departamento que en Álava los trabajadores autónomos tengan incentivos fiscales para la producción cultural y en Bizkaia no?
3. ¿Cómo valora el departamento que en Gipuzkoa y Álava se puedan tener en cuenta los tres territorios históricos de la Comunidad Autónoma del País Vasco para las deducciones y en Bizkaia no?



4. Sailak uste du kultura-ekoizpenerako pizgarri bateratu eta harmonizatuak izateak lagunduko lukeela EAEko kultura-politika integral eta koherente bati begira? Zer aldaketa egin beharko lirakeela uste duzue?
5. Sailak zer lan egingo du edo egiten ari da pizgarri koherente eta harmonizatuak izan daitezen?
6. Lurralde bakoitzeko foru-arauak diseinatzerakoan sailari kontsulta egin zitzaion? Zer iritzi eta txosten igorri zituen sailak erabaki eta proposamen horien inguruan?

Gasteizen, 2024ko abenduaren 17an

**Josu Aztiria Urtaran, EH Bildu taldeko legebiltzarkidea eta bozeramaileordea**

\*\*\*

**Hizkuntza-teknologiaren inguruko ekimenen koordinazioari, osagarritasunari eta gobernantzari buruz** (Izapidetzeko onartzea)  
(13/10.05.03.00228)

Mahaiak, 2025eko urtarrilaren 14ko bileran, erabaki du izapidetzeko onartzea, idatziz erantzuteko, Lore Martinez Axpe EH Bildu taldeko legebiltzarkideak Jaurlaritzari egindako GALDERA, eta agindu du Eusko Jaurlaritzari bidal dakiola eta Eusko Legebiltzarraren Aldizkari Ofizialean argitaratu dadila.

**Eusko Legebiltzarreko lehendakaria  
Bakartxo Tejeria Otermin**

Zioa

Adimen artifizialaren garapenaren eta, zehazki, hizkuntzaren prozesamendu automatikoaren lan-eremua giltzarria da adimen artifizialaren esparruan, eta garrantzi berezi eta estrategikoa dauka euskararen garapenean. Hala jasota dago Aroa estrategian, bai eta Euskararen Aholku Batzordearen gomendio-txostenetan ere.

Hizkuntza-teknologiaren esparruan, zientzia, teknologia eta berrikuntzarekin lotutako esparru orotan bezala, ezinbestekoak dira ikerlerroak, teknologia eta horiek aurrera eramateko eragileen arteko koordinazioa, osagarritasuna eta gobernantza.

Legebiltzarkide gisa dagokidan funtzioa ahalik eta egokien betetzeko, eta indarrean dagoen Erregelamenduaren babesean, honako idatzizko galdera hauek egiten dizkiot Jaurlaritzari.

4. ¿Considera el departamento que la existencia de incentivos unificados y armonizados dirigidos a la producción cultural contribuiría a una política cultural vasca integral y coherente? ¿Qué cambios consideran que habría que hacer?
5. ¿Qué tareas va a realizar o está realizando el departamento a fin de que los incentivos sean coherentes y armonizados?
6. ¿Se consultó al departamento para el diseño de las normas forales de cada territorio? ¿Qué criterio e informes emitió el departamento en relación con dichas decisiones y propuestas?

Vitoria, 17 de diciembre de 2024

**Josu Aztiria Urtaran, parlamentario y portavoz suplente del grupo EH Bildu**

\*\*\*

**Relativa a la coordinación, complementariedad y gobernanza de las iniciativas sobre las tecnologías lingüísticas** (Admisión a trámite)  
(13/10.05.03.00228)

La Mesa, en su reunión del día 14 de enero de 2025, acuerda admitir a trámite para su respuesta por escrito la PREGUNTA formulada al Gobierno por D.ª Lore Martinez Axpe, parlamentaria del grupo EH Bildu, y ordena su remisión al Gobierno Vasco y su publicación en el Boletín Oficial del Parlamento Vasco.

**La presidenta del Parlamento Vasco  
Bakartxo Tejeria Otermin**

Justificación

El desarrollo de la inteligencia artificial y, concretamente, el procesamiento automático del lenguaje es un ámbito de trabajo clave en el campo de la inteligencia artificial, y tiene una importancia especial y estratégica en el desarrollo del euskera. Así viene recogido tanto en la estrategia Aroa como en los informes de recomendaciones del Consejo Asesor del Euskera.

En el ámbito de las tecnologías lingüísticas, al igual que en cualquier ámbito relacionado con la ciencia, la tecnología y la innovación, resultan indispensables las líneas de investigación, la tecnología, así como la coordinación entre los diferentes agentes, la complementariedad y la gobernanza para llevarlas adelante.

Para cumplir lo más adecuadamente posible la función que me corresponde como parlamentaria, y al amparo del vigente Reglamento, formulo las siguientes preguntas escritas al Gobierno.



## GALDERAK

1. Zein izango da EUSKORPORA (02 4711 22 452 25/0900) proiektuaren eta EJIEn datu-bulegoaren arteko koordinazioa, zehazki?
2. Jakina denez, UPV/EHU hizkuntza-eredu neuronalak entrenatzeko corpusen bilketa-lana egiten ari da ILENIA eta IKER-GAITU proiektuen barnean, eta Espainiako Gobernuaren eta Jaurlaritzaren finantzaketa du. Jaurlaritzak dagoeneko UPV/EHU egiten ari den lana bikoiztuko du, edo osagarriak izango dira? Zein da lan hori beste elkarte baten bidez egitearen arrazoia?
3. Industria, Trantsizio Energetiko eta Jasangarritasunaren Sailak 5 milioi euro jarriko ditu EUSKORPUS proiektua garatzeko.
  - a) Zer harreman dago EUSKORPUS proiektuaren eta EUSKORPORA elkartearen artean edo elkarte osatzen duten eragileen artean?
  - b) Zein izango da EUSKORPUS eta IKER-GAITU proiektuen arteko osagarritasuna?
  - c) Zer erakundek sustatu eta bultzatu du EUSKORPUS proiektua?
  - d) Euskarazko ikerketan diharduten entitateek bultzatutako bi LLM daude une honetan erabilgarri: Latxa (<https://github.com/hitz-zentroa/latxa>) eta LLAMA-EUS-88 (<https://huggingface.co/orai-nlp/Llama-eus-88>). Zein izango da EUSKORPUS proiektuaren ekarpena eta osagarritasuna proiektu horiekiko?
  - e) Hitz egin eta koordinatu al da Langune-GAIArekin (hizkuntzen industria biltzen duen elkarte)?
4. Aurrekontu hauen bidez hizkuntza-teknologien estrategia garatzeko asmorik ba al du sailak? Galdetu zen aurrekontuen inguruko galderetan, eta "Horretan ari gara" izan zen erantzun literala. Zer esan nahi du, zehazki, "Horretan ari gara" erantzunak? Zer ekimen eta jardun ari da egiten saila, zehazki, bide horretan?
5. Jaurlaritzak ez al luke lidergoa hartu behar euskararen alorrean dagoen potentzialitate teknologikoari etekina atera eta eragileen arteko elkarlana biltzeko?

## PREGUNTAS

1. ¿Cuál va a ser la coordinación concreta entre el proyecto EUSKORPORA (02 4711 22 452 25/0900) y la oficina de datos de EJI?
2. Como es sabido, la UPV/EHU está haciendo un trabajo de recopilación de corpus para entrenar los modelos neuronales de lenguaje dentro de los proyectos ILENIA e IKER-GAITU, y cuenta con la financiación del Gobierno de España y del Gobierno Vasco. ¿El Gobierno Vasco duplicará el trabajo que ya está haciendo la UPV/EHU, o van a ser complementarios? ¿Cuál es el motivo de hacer este trabajo a través de otra asociación?
3. El Departamento de Industria, Transición Energética y Sostenibilidad va a destinar 5 millones de euros para el desarrollo del proyecto EUSKORPUS.
  - a) ¿Cuál es la relación entre el proyecto EUSKORPUS y la asociación EUSKORPORA o los agentes que integran la asociación?
  - b) ¿Cuál va a ser la complementariedad entre los proyectos EUSKORPUS e IKER-GAITU?
  - c) ¿Qué institución ha promovido e impulsado el proyecto EUSKORPUS?
  - d) En este momento están disponibles dos LLM impulsados por entidades de investigación en euskera: Latxa (<https://github.com/hitz-zentroa/latxa>) y LLAMA-EUS-88 (<https://huggingface.co/orai-nlp/Llama-eus-88>). ¿Cuál va a ser la aportación y la complementariedad del proyecto EUSKORPUS con respecto a dichos proyectos?
  - e) ¿Se ha hablado y coordinado con Langune-GAIA (asociación que aglutina la industria lingüística)?
4. ¿Tiene intención el departamento de desarrollar la estrategia de tecnologías lingüísticas mediante estos presupuestos? Esto ya se preguntó en las preguntas sobre los presupuestos, y la respuesta literal fue "Estamos en ello". ¿Qué significa exactamente la respuesta "Estamos en ello"? ¿Qué iniciativas y acciones concretas está haciendo el departamento en ese sentido?
5. ¿No debería el Gobierno asumir el liderazgo para sacar provecho a la potencialidad tecnológica que existe en el ámbito del euskera y para buscar la colaboración entre los agentes?





6. Nola baloratuko luke Jaurlaritzak hizkuntza-teknologiaren estrategia bat garatu eta gobernantza-sistema bat ezartzea, koordinazioa eta osagarritasuna bermatzeko?

Gasteizen, 2024ko abenduaren 18an

**Lore Martinez Axpe, EH Bildu taldeko legebiltzarkidea eta bozeramaileordea**

\*\*\*

***The Champions Burger makrojaialdian lan-legeria betearazteko egin beharreko jardueri buruz*** (Izapidetzeko onartzea)  
(13/10.05.03.00229)

Mahaiak, 2025eko urtarrilaren 14ko bileran, erabaki du izapidetzeko onartzea, idatziz erantzuteko, Edurne Benito del Valle Fernandez EH Bildu taldeko legebiltzarkideak bigarren lehendakariorde eta Ekonomia, Lan eta Enplegu sailburuari egindako GALDERA, eta agindu du Eusko Jaurlaritzari bidal dakiola eta Eusko Legebiltzarraren Aldizkari Ofizialean argitaratu dadila.

**Eusko Legebiltzarreko lehendakaria  
Bakartxo Tejeria Otermin**

Zioa

Pasa den abenduaren 12an, *The Champions Burger* makrojaialdia hasi zen Barakaldon, eta urtarrilaren 6ra arte iraungo du.

Jaialdi hori bera aurtengo irailean ere egin da Iruñean, eta asko izan ziren bertako langileen lan-baldintzak direla-eta egindako salaketak; besteak beste, atsedanak errespetatu gabeko lanaldiak, lan-osasuneko neurririk eza, soldata txikiak, kaleratzeak lan-eskubideak errespetatzeko eskatzeagatik, hitzarmen kolektiboa ez aplikatzea, eta abar. Gainera, hainbat elikadura-intoxikazio gertatu zen.

Izan ere, arazoak ez dira soilik lan-arlokoak. Ikusi besterik ez dago elikagaien eta instalazio zein azpiegituren segurtasunarekin izaten ari diren gorabeherak. Zehazki, haize-ufadak direla medio istripu bat gertatu zen abenduaren 17ko iluntzean, eta horrek hiru zauritu eragin zituen. Horrek jaialdia behin-behinean itxia ekarri du.

Arazoa ez da kasu zehatz honetara mugatzen; badakigu tankera honetako jardunaldiak nola operatu ohi duten eta, besteak beste, lan-baldintzei begira erakusten duten errespetu txikia. Gainera, azpimarratzekoa da lanpostuok orokorrean gazteek betetzen dituztela, askorentzat prekarietatea izanik

6. ¿Cómo valoraría el Gobierno el desarrollo de una estrategia de tecnologías lingüísticas y la implantación de un sistema de gobernanza para garantizar la coordinación y la complementariedad?

Vitoria, 18 de diciembre de 2024

**Lore Martinez Axpe, parlamentaria y portavoz suplente del grupo EH Bildu**

\*\*\*

***Sobre las acciones a realizar para hacer cumplir la legislación laboral en el macrofestival The Champions Burger*** (Admisión a trámite)  
(13/10.05.03.00229)

La Mesa, en su reunión del día 14 de enero de 2025, acuerda admitir a trámite para su respuesta por escrito la PREGUNTA formulada al vicepresidente segundo y consejero de Economía, Trabajo y Empleo por D.ª Edurne Benito del Valle Fernandez, parlamentaria del grupo EH Bildu, y ordena su remisión al Gobierno Vasco y su publicación en el Boletín Oficial del Parlamento Vasco.

**La presidenta del Parlamento Vasco  
Bakartxo Tejeria Otermin**

Justificación

El pasado 12 de diciembre dio comienzo en Barakaldo el macrofestival *The Champions Burger*, que se prolongará hasta el 6 de enero.

Ese mismo festival se celebró en Pamplona en septiembre de este año, con numerosas denuncias por las condiciones de trabajo de la plantilla, tales como jornadas sin respetar los descansos, falta de medidas de salud laboral, salarios bajos, despidos por exigir que se respeten los derechos laborales, no aplicar el convenio colectivo, etcétera. Además, se produjeron varias intoxicaciones alimentarias.

De hecho, los problemas no son exclusivamente laborales. No hay más que ver los incidentes que se están produciendo en el ámbito de la seguridad alimentaria y de las instalaciones e infraestructuras. Más concretamente, el 17 de diciembre al anochecer se produjo un accidente provocado por las fuertes rachas de viento, causando tres personas heridas. Esto ha supuesto el cierre provisional del festival.

El problema no se limita a este caso concreto, sabemos cómo suelen operar habitualmente este tipo de eventos y el escaso respeto que muestran hacia las condiciones de trabajo, entre otros aspectos. Además, cabe destacar que estos puestos de trabajo son cubiertos en general por jóvenes, y para muchas de



lehen lan-esperientzietako bat.

Hala, gazteen lan prekarioaren aurrean, lehentasunez neurriak hartu behar direla deritzogu. Horiek horrela, hurrango galderak egiten ditugu.

#### IDATZIZ ERANTZUTEKO GALDERAK

- Zein da Jaurlaritzaren iritzia zioan zehaztu ditugun *The Champions Burger* jaialdiko azken gertakarien inguruan?
- Makroekitaldi horrek diru publikorik jaso du Jaurlaritzaren aldetik?
- Makrojaialdi horren aurrekariak jakinda, Lan Ikuskaritzak ofizioz jardungo al du lan-legeria bete dadin?
- Ba al du Jaurlaritzak asmorik Lan Ikuskaritzaren parte-hartzea areagotzeko horrelako makrofestetan ematen diren lan-baldintzen urraketak errokit konpontzeko?
- Instalazio zein azpiegituren segurtasunarekin gertaturiko arazoak ikusita, ikuskatu zituen horiek aldeztu aurretik Jaurlaritzak, langileen lantokia segurua dela bermatzeko?
- Behin 17ko istripua gertatu ondoren, zer neurri gehigarri hartzeko asmoa du Jaurlaritzak langileen lantokian lan-baldintza egokiak bermatzeko?
- Ba al du Jaurlaritzak bestelako neurririk aplikatzeko intentziorik?

Gasteizen, 2024ko abenduaren 19an

**Eduarne Benito del Valle Fernandez,**  
EH Bildu taldeko legebiltzarkidea eta  
bozeramaileordea

\*\*\*

***Ur beltzen isurketa baten ikerketaren ardura Ertzaintzarena ez izatearen inguruan*** (Izapidetzeko onartzea)  
(13/10.05.03.00232)

Mahaiak, 2025eko urtarrilaren 14ko bileran, erabaki du izapidetzeko onartzea, idatziz erantzuteko, Gorka Ortiz de Guinea Vea Murguia EH Bildu taldeko legebiltzarkideak Segurtasuneko sailburuari egindako GALDERA, eta agindu du Eusko Jaurlaritzari bidal

estas personas jóvenes la precariedad es una de sus primeras experiencias laborales.

Así, frente a la precariedad laboral de la juventud, consideramos que hay que tomar medidas de manera prioritaria. Por ello, formulamos las siguientes preguntas.

#### PREGUNTAS PARA SU RESPUESTA POR ESCRITO

- ¿Cuál es la opinión del Gobierno sobre los últimos acontecimientos acaecidos en el festival *The Champions Burger* que se han señalado en la justificación de la iniciativa?
- ¿Este macroevento ha recibido fondos públicos del Gobierno?
- Conociendo los antecedentes de este macrofestival, ¿la Inspección de Trabajo actuará de oficio para garantizar el cumplimiento de la legislación laboral?
- ¿Tiene intención el Gobierno de reforzar la intervención de la Inspección de Trabajo a fin de solucionar de raíz las vulneraciones de las condiciones de trabajo que se dan en este tipo de macrofiestas?
- A la vista de los problemas surgidos con la seguridad tanto de las instalaciones como de las infraestructuras, ¿el Gobierno inspeccionó dichos elementos previamente para garantizar que el lugar de trabajo de la plantilla era seguro?
- Una vez ocurrido el accidente del día 17, ¿qué medidas adicionales tiene previsto adoptar el Gobierno para garantizar unas condiciones laborales adecuadas en el lugar de trabajo de la plantilla?
- ¿Tiene intención el Gobierno de aplicar alguna otra medida?

Vitoria, 19 de diciembre de 2024

**Eduarne Benito del Valle Fernandez,**  
parlamentaria y portavoz suplente del grupo  
EH Bildu

\*\*\*

***Relativa a que la Ertzaintza no tenga la responsabilidad de la investigación de un vertido de aguas fecales*** (Admisión a trámite)  
(13/10.05.03.00232)

La Mesa, en su reunión del día 14 de enero de 2025, acuerda admitir a trámite para su respuesta por escrito la PREGUNTA formulada al consejero de Seguridad por D. Gorka Ortiz de Guinea Vea Murguia, parlamentario del grupo EH Bildu, y ordena

dakiola eta Eusko Legebiltzarraren Aldizkari Ofizialean argitaratu dadila.

**Eusko Legebiltzarreko lehendakaria  
Bakartxo Tejeria Otermin**

Zioa

Prentsan agertu den informazioaren arabera, Gamiz-Fikako herritar batek Ertzaintzan salaketa bat jarri du, bere lursailean egon den ur beltzen isurketa dela-eta. Salaketa horretan herritar horrek dio Aitzea zaharren egoitza dela ur beltzen isurketa horren arduraduna.

Informazio horri jarraituz, Gernikako Instrukzioko 2 zenbakiko epaitegiko titularrak UCOMAri (Guardia Zibilaren Ingurumeneko Unitate Zentral Operatiboa) agindu dio ur beltzen isurketa horien ikerketa.

Hori dela-eta, indarrean dagoen Erregelamenduaren babesean, honako idatzizko galdera hauek egiten dizkiot Bingen Zupiria sailburuari.

**IDATZIZKO GALDERAK**

- Konpartitzen al du sailburuak erabaki hori?
- Zergatik uste du sailburuak epaileak eskatu diola UCOMAri ikerketa hori egin dezala?
- Artikulu horren arabera, epaileak honako esaldi hau dio UCOMAri buruz: "Podrá aportar información objetiva sobre la realidad del lugar"; uste al duzu UCOMAk bakarrik eman ahal duela informazio objektiboa? Uste al du sailburuak Ertzaintzak ezin duela informazio objektibo hori eman?
- Uste al du sailburu honek Ertzaintzak baliabide nahikoak dauzkala ikerketa horiek egiteko?
- 2021ean Espainiako Gobernuak eta Eusko Jaurlaritzak adostu zuten Ertzaintzak lehentasuna izatea, Guardia Zibilaren aurretik, ingurumen-delituetan. Zergatik ez da bete erabaki hori?
- Zer egingo du sailburu honek hemendik aurrera ikerketa mota horiek Ertzaintzak eramateko, eta ez UCOMAk?

Gasteizen, 2025eko urtarrilaren 7an

**Gorka Ortiz de Guinea Vea Murguia,**  
EH Bildu taldeko legebiltzarkidea eta bozeramaileordea

\*\*\*

su remisión al Gobierno Vasco y su publicación en el Boletín Oficial del Parlamento Vasco.

**La presidenta del Parlamento Vasco  
Bakartxo Tejeria Otermin**

Justificación

Según la información aparecida en la prensa, un vecino de Gamiz-Fika ha interpuesto una denuncia ante la Ertzaintza, por el vertido de aguas fecales en su propiedad. En dicha denuncia el vecino refiere que es la residencia de ancianos Aitzea la responsable de este vertido de aguas fecales.

Con base en esta información, el titular del Juzgado de Instrucción n.º 2 de Gernika ha encargado a la UCOMA (Unidad Central Operativa de Medio Ambiente de la Guardia Civil) la investigación de estos vertidos de aguas fecales.

Por ello, al amparo del vigente Reglamento, formulamos las siguientes preguntas para su respuesta por escrito al consejero Bingen Zupiria.

**PREGUNTAS PARA SU RESPUESTA POR ESCRITO**

- ¿Comparte el consejero esta decisión?
- ¿Por qué cree el consejero que el juzgado ha ordenado a la UCOMA que realice esa investigación?
- Según dicho artículo, el juzgado señala lo siguiente sobre la UCOMA: "Podrá aportar información objetiva sobre la realidad del lugar"; ¿considera usted que solo la UCOMA puede proporcionar información objetiva? ¿Considera el consejero que la Ertzaintza no puede aportar esa información objetiva?
- ¿Considera este consejero que la Ertzaintza dispone de recursos suficientes para llevar a cabo estas averiguaciones?
- En 2021 el Gobierno español y el Gobierno Vasco acordaron que la Ertzaintza tuviera prioridad sobre la Guardia Civil en materia de delitos medioambientales. ¿Por qué no se ha cumplido este acuerdo?
- ¿Qué va a hacer este consejero para que, a partir de ahora, sea la Ertzaintza la que lleve a cabo este tipo de investigaciones, y no la UCOMA?

Vitoria, 7 de enero de 2025

**Gorka Ortiz de Guinea Vea Murguia,**  
parlamentario y portavoz suplente del grupo EH Bildu

\*\*\*



**Portugaleteko eskola-maparen berritzeari buruz**  
(Izapidetzeko onartzea)  
(13/10.05.03.00233)

Mahaiak, 2025eko urtarrilaren 14ko bileran, erabaki du izapidetzeko onartzea, idatziz erantzuteko, Ikoitz Arrese Otegi EH Bildu taldeko legebiltzarkideak Hezkuntzako sailburuari egindako GALDERA, eta agindu du Eusko Jaurlaritzari bidal dakiola eta Eusko Legebiltzarraren Aldizkari Ofizialean argitara dadila.

**Eusko Legebiltzarreko lehendakaria**  
**Bakartxo Tejeria Otermin**

Zioa

EH Bilduk jakin izan du, kezkaz, Hezkuntza Saila ari dela eskola-mapa berregokitzen. Honek ekarriko du zenbait eskola publikoren arteko fusioa, tartean, antza, Portugaleteko Zubeldia eta Virgen de la Guía ikastetxeak. Gai hau oso delikatu da, eta oso konplexua. Gainera, tokian tokiko komunitateen inplikazioa eta adostasuna ezinbestekoak dira.

Gai honi modu partekatuan heltzeko erabateko prestutasuna du EH Bilduk eta, hau dela eta, indarrean dagoen Erregelamenduaren babesean, ondorengo galderak egiten dizkiet Hezkuntzako sailburuari, idatziz erantzun ditzan.

**GALDERAK**

1. Zein asmo du Hezkuntza Sailak Portugaleteko eskola-maparen berritzeari dagokionez?
2. Bilera-kopurua eta parte-hartzaileak zehaztuta, zein harreman izan du sailak Portugaleteko hezkuntza-komunitatearekin asmo horren gauzatzearen inguruan?

Gasteizen, 2025eko urtarrilaren 8an

**Ikoitz Arrese Otegi, EH Bildu taldeko legebiltzarkidea eta bozeramaileordea**

\*\*\*

**Etxeko langileen lan-ordutegia zenbatzea ahalbidetuko duen sistemaren ezarpena sustatzeko eta kontrolatzeko neurriei buruz**  
(Izapidetzeko onartzea)  
(13/10.05.03.00235)

Mahaiak, 2025eko urtarrilaren 14ko bileran, erabaki du izapidetzeko onartzea, idatziz erantzuteko, Pazis García Ortega EH Bildu taldeko legebiltzarkideak bigarren lehendakariorde eta Ekonomia, Lan eta Enpleguko sailburuari egindako

**Sobre la renovación del mapa escolar de Portugalete** (Admisión a trámite)  
(13/10.05.03.00233)

La Mesa, en su reunión del día 14 de enero de 2025, acuerda admitir a trámite para su respuesta por escrito la PREGUNTA formulada a la consejera de Educación por D. Ikoitz Arrese Otegi, parlamentario del grupo EH Bildu, y ordena su remisión al Gobierno Vasco y su publicación en el Boletín Oficial del Parlamento Vasco.

**La presidenta del Parlamento Vasco**  
**Bakartxo Tejeria Otermin**

Justificación

EH Bildu ha tenido conocimiento, con preocupación, de que el Departamento de Educación está readaptando el mapa escolar. Esto supondrá una fusión entre algunas escuelas públicas, entre otras, las de los centros educativos Zubeldia y Virgen de la Guía en Portugalete. Este es un tema muy delicado y complejo. Además, son imprescindibles la implicación y el consenso de las comunidades locales.

EH Bildu tiene plena disposición para abordar este tema de forma compartida. Por ello, al amparo del vigente Reglamento, formulo las siguientes preguntas a la consejera de Educación, para su respuesta por escrito.

**PREGUNTAS**

1. ¿Qué intenciones tiene el Departamento de Educación en lo que respecta a la renovación del mapa escolar en Portugalete?
2. Concretando el número de reuniones y quiénes han participado, ¿qué contactos ha mantenido el departamento con la comunidad educativa de Portugalete en relación con llevar a cabo este proyecto?

Vitoria, 8 de enero de 2025

**Ikoitz Arrese Otegi, parlamentario y portavoz suplente del grupo EH Bildu**

\*\*\*

**Sobre medidas de fomento y control de la implantación del sistema que permita computar el horario laboral del personal doméstico** (Admisión a trámite)  
(13/10.05.03.00235)

La Mesa, en su reunión del día 14 de enero de 2025, acuerda admitir a trámite para su respuesta por escrito la PREGUNTA formulada al vicepresidente segundo y consejero de Economía, Trabajo y Empleo por D.º Pazis García Ortega, parlamentaria del grupo

GALDERA, eta agindu du Eusko Jaurlaritzari bidal dakiola eta Eusko Legebiltzarraren Aldizkari Ofizialean argitara dadila.

**Eusko Legebiltzarreko lehendakaria**  
**Bakartxo Tejeria Otermin**

Zioa

Abenduaren 19an, C.531/2023 prozeduran, Europar Batasuneko Justizia Auzitegiak (EJJA) deklaratu du lanaldia erregistratzeko betebeharra etxeko enpleguari ere aplikatzen zaiola.

Orain arte, auzitegiek eta Lan Ikuskaritzak (101/2019 irizpide teknikoa) interpretatu dute etxeko eta zaintzako langileak beren lanaldia erregistratzeko edozein sistematatik kanpo zeudela kasu guztietan.

Baina orain Europar Batasuneko Justizia Auzitegiaren ebazpen judizialak argi aitortu du etxeko enpleguan ere ordutegi-kontrolako sistemak ezarri behar direla.

Ebazpen judizial horren ondorioen gainean galdera hauek egiten ditut idatziz erantzuteko.

#### IDATZIZ ERANTZUTEKO GALDERAK

- Zer neurri hartuko ditu zure Gobernuak etxeko langileen lan-ordutegia zenbatzea ahalbidetuko duen sistema bat ezartzea sustatzeko?
- Zer neurri hartuko ditu Lan Ikuskaritzak etxeko langileen lan-ordutegia zenbatzea ahalbidetuko duen sistema bat ezartzen dela kontrolatzeko?

Gasteizen, 2025eko urtarrilaren 8an

**Pazis Garcia Ortega, EH Bildu taldeko legebiltzarkidea eta bozeramaileordea**

\*\*\*

**Hezkuntzako sailburuak Euskal Hezkuntza Zerbitzu Publikoaren inguruan duen iritzia buruz**  
(Izapidetzeko onartzea)  
(13/10.05.03.00236)

Mahaiak, 2025eko urtarrilaren 14ko bileran, erabaki du izapidetzeko onartzea, idatziz erantzuteko, Ikoitz Arrese Otegi EH Bildu taldeko legebiltzarkideak Hezkuntzako sailburuari egindako GALDERA, eta agindu du Eusko Jaurlaritzari bidal dakiola eta Eusko Legebiltzarraren Aldizkari Ofizialean argitara dadila.

**Eusko Legebiltzarreko lehendakaria**  
**Bakartxo Tejeria Otermin**

EH Bildu, y ordena su remisión al Gobierno Vasco y su publicación en el Boletín Oficial del Parlamento Vasco.

**La presidenta del Parlamento Vasco**  
**Bakartxo Tejeria Otermin**

Justificación

El 19 de diciembre, en el procedimiento C.531/2023, el Tribunal de Justicia de la Unión Europea (TJUE) declaró que la obligación de registro de la jornada laboral también se aplica al empleo doméstico.

Hasta ahora, los tribunales y la Inspección de Trabajo (criterio técnico 101/2019) habían interpretado que el personal doméstico y de cuidados estaba excluido en todos los casos de cualquier sistema de registro de su jornada.

Pero ahora la resolución judicial del Tribunal de Justicia de la Unión Europea ha reconocido claramente la obligación de establecer sistemas de control horario también en el empleo doméstico.

Formulo las siguientes preguntas para su respuesta por escrito sobre las conclusiones de esta resolución judicial.

#### PREGUNTAS PARA SU RESPUESTA POR ESCRITO

- ¿Qué medidas va a adoptar su Gobierno para promover la implantación de un sistema que permita computar el horario laboral del personal doméstico?
- ¿Qué medidas va a adoptar la Inspección de Trabajo para controlar la implantación de un sistema que permita computar el horario laboral del personal doméstico?

Vitoria, 8 de enero de 2025

**Pazis Garcia Ortega, parlamentaria y portavoz suplente del grupo EH Bildu**

\*\*\*

**Relativa a la opinión de la consejera de Educación sobre el Servicio Público Vasco de Educación** (Admisión a trámite)  
(13/10.05.03.00236)

La Mesa, en su reunión del día 14 de enero de 2025, acuerda admitir a trámite para su respuesta por escrito la PREGUNTA formulada a la consejera de Educación por D. Ikoitz Arrese Otegi, parlamentario del grupo EH Bildu, y ordena su remisión al Gobierno Vasco y su publicación en el Boletín Oficial del Parlamento Vasco.

**La presidenta del Parlamento Vasco**  
**Bakartxo Tejeria Otermin**



## Zioa

Iragan abenduaren 18an, EH Bilduren eskaerari jarraituz, Hezkuntzako sailburuak agerraldia egin zuen Hezkuntza Batzordean Hezkuntza Akordioaren garapenaren inguruan azalpenak emateko. Luze jo zuen batzorde horrek, baina, hala ere, EH Bilduk egindako hainbat galdera argitu gabe gelditu ziren; tartean, Euskal Hezkuntza Zerbitzu Publikoari (EHZP) dagozkionak. EHZP 2023ko abenduaren 21ean onartuko Hezkuntza Legearen muina da, horregatik, horren inguruan zehaztasun eta argipen ahal eta sakonena izatea ezinbestekoa dela deritzogu.

Hori dela eta, indarrean dagoen Erregelamenduaren babesean, ondorengo galdera hauek egiten dizkiot Hezkuntzako sailburuari, idatziz erantzun ditzan.

## GALDERAK

1. Zer da Hezkuntzako sailburuarentzat Euskal Hezkuntza Zerbitzu Publikoa?
2. Zer suposatzen du sailburuarentzat Euskal Hezkuntza Zerbitzu Publikoak?
3. EHZP eskaini nahi duten ikastetxeek Hezkuntza Sailari jakinarazi behar diote? Alegia, nola daki sailak ikastetxe batek EHZP eskaintzeko borondatea duen ala ez?
4. Zer bitarteko jarri ditu martxan sailak ikastetxeek EHZP eskaintzeko printzipioak bete ditzaten?
5. Zer epemuga dute EHZP eskaini nahi duten ikastetxeek legez araututa dauden printzipio guztiak betetzeko?
6. Ikastetxeren batek EHZP eskaintzeko printzipio batzuk betetzen baditu, baina beste batzuk ez, zer bitarteko ditu sailak halakoak identifikatzeko?
7. Eta aurreko galderari jarraikiz, zer ondorio izango du printzipio horiek ez betetzeak?
8. Badu sailak protokolorik EHZP eskaintzeko bete behar diren printzipioak bere osotasunean betetzen ez dituzten ikastetxeei kalteordainik eskatzeko?

## Justificación

El pasado 18 de diciembre, a petición de EH Bildu, la consejera de Educación compareció en la Comisión de Educación para dar explicaciones acerca del desarrollo del Acuerdo de Educación. La sesión se prolongó mucho, pero, aun así, quedaron sin aclarar algunas cuestiones planteadas por EH Bildu, entre ellas las relativas al Servicio Público Vasco de Educación. Dicho servicio es el núcleo de la Ley de Educación aprobada el 21 de diciembre de 2023, por lo que consideramos imprescindible disponer de precisiones y aclaraciones lo más detalladas posible sobre él.

Por ello, al amparo del Reglamento vigente, dirijo las siguientes preguntas a la consejera de Educación, para su respuesta por escrito.

## PREGUNTAS

1. ¿Qué es para la consejera de Educación el Servicio Público Vasco de Educación?
2. ¿Qué supone para la consejera el Servicio Público Vasco de Educación?
3. ¿Los centros que deseen ofrecer el Servicio Público Vasco de Educación deben comunicárselo al Departamento de Educación? Es decir, ¿cómo sabe el departamento si un centro tiene voluntad o no de ofrecer el Servicio Público Vasco de Educación?
4. ¿Qué medios ha puesto en marcha el departamento para que los centros educativos cumplan los principios para ofrecer el Servicio Público Vasco de Educación?
5. ¿Qué fecha límite tienen los centros que quieran ofrecer el Servicio Público Vasco de Educación para cumplir todos los principios que están regulados por ley?
6. ¿De qué medios dispone el departamento para identificar los centros que cumplen algunos de los principios para ofrecer el Servicio Público Vasco de Educación pero no todos?
7. Y, en línea con la pregunta anterior, ¿qué consecuencias tendrá el incumplimiento de esos principios?
8. ¿Tiene el departamento un protocolo para exigir compensaciones a los centros que no cumplan íntegramente los principios que se deben cumplir para ofrecer el Servicio Público Vasco de Educación?

Gasteizen, 2025eko urtarrilaren 9an

Vitoria, 9 de enero de 2025

**Ikoitz Arrese Otegi, EH Bildu taldeko legebiltzarkidea eta bozeramaileordea**

**Ikoitz Arrese Otegi, parlamentario y portavoz suplente del grupo EH Bildu**

\*\*\*

\*\*\*

***Nazioarteko zenbait ebaluazio-probatan parte hartzeari uko egiteari buruz*** (Izapidetzeko onartzea) (13/10.05.03.00237)

***Sobre la renuncia a participar en determinadas pruebas de evaluación internacionales*** (Admisión a trámite) (13/10.05.03.00237)

Mahaiak, 2025eko urtarrilaren 14ko bileran, erabaki du izapidetzeko onartzea, idatziz erantzuteko, Ikoitz Arrese Otegi EH Bildu taldeko legebiltzarkideak Hezkuntzako sailburuari egindako GALDERA, eta agindu du Eusko Jaurlaritzari bidal dakiola eta Eusko Legebiltzarraren Aldizkari Ofizialean argitara dadila.

La Mesa, en su reunión del día 14 de enero de 2025, acuerda admitir a trámite para su respuesta por escrito la PREGUNTA formulada a la consejera de Educación por D. Ikoitz Arrese Otegi, parlamentario del grupo EH Bildu, y ordena su remisión al Gobierno Vasco y su publicación en el Boletín Oficial del Parlamento Vasco.

**Eusko Legebiltzarreko lehendakaria  
Bakartxo Tejeria Otermin**

**La presidenta del Parlamento Vasco  
Bakartxo Tejeria Otermin**

Zioa

Justificación

Komunikabideen bidez jakin dugunez, antza, Hezkuntza Sailak erabaki du nazioarteko hezkuntza-ebaluazio froga batzuetan ez parte hartzea.

Según hemos podido saber a través de los medios de comunicación, el Departamento de Educación ha decidido al parecer no participar en ciertas pruebas internacionales de evaluación educativa.

Hori dela-eta, indarrean dagoen Erregelamenduaren babesean, honako galdera hauek egiten dizkiet Hezkuntzako sailburuari, idatziz erantzun dezan.

Por ello, al amparo del vigente Reglamento, formulo las siguientes preguntas a la consejera de Educación, para su respuesta por escrito.

GALDERAK

PREGUNTAS

1. Egia al da komunikabideen bitartez zabaldu den albistea?
2. Hala bada, zein ebaluazio-proba egiteari egin dio uko Hezkuntza Sailak?
3. Zein arrazoiengatik?
4. Nazioarteko zein ebaluazio-probatan parte hartzen jarraituko da?

1. ¿Es cierta la noticia que se ha difundido a través de los medios de comunicación?
2. En caso afirmativo, ¿qué prueba de evaluación ha rechazado el Departamento de Educación?
3. ¿Por qué motivo?
4. ¿En qué pruebas internacionales de evaluación se va a seguir participando?

Gasteizen, 2025eko urtarrilaren 9an

Vitoria, 9 de enero de 2025

**Ikoitz Arrese Otegi, EH Bildu taldeko legebiltzarkidea eta bozeramaileordea**

**Ikoitz Arrese Otegi, parlamentario y portavoz suplente del grupo EH Bildu**

\*\*\*

\*\*\*

***Bilboko Scientia ikastetxeari buruz*** (Izapidetzeko onartzea) (13/10.05.03.00238)

***Sobre el colegio Scientia de Bilbao*** (Admisión a trámite) (13/10.05.03.00238)

Mahaiak, 2025eko urtarrilaren 14ko bileran, erabaki du izapidetzeko onartzea, idatziz erantzuteko,

La Mesa, en su reunión del día 14 de enero de 2025, acuerda admitir a trámite para su respuesta por



Ikoitz Arrese Otegi EH Bildu taldeko legebiltzarkideak Hezkuntzako sailburuari egindako GALDERA, eta agindu du Eusko Jaurlaritzari bidal dakiola eta Eusko Legebiltzarraren Aldizkari Ofizialean argitarara dadila.

**Eusko Legebiltzarreko lehendakaria  
Bakartxo Tejeria Otermin**

Zioa

Komunikabideen bidez jakin dugu Bilboko Scientia ikastetxeak orain arteko hezkuntza-eskaintza emateari utziko diola. Hori dela eta, indarrean dagoen Erregelamenduaren babesean, honako galdera hauek egiten dizkiet Hezkuntzako sailburuari, idatziz erantzun dezan.

**GALDERAK**

1. Zein irregulartasun zehatz dela-eta erabaki zuen Hezkuntza Sailak Bilboko Scientia ikastetxeari hezkuntza-ituna kentzea?
2. Zein arrazoiengatik itxiko ditu ateak 2024. urtera arte finantzaketa publikoa jasotzen zuen aipatutako ikastetxeak?
3. Noiz jakin izan zuen sailak ikastetxearen erabaki hau?
4. Egoera honetaz jakitun, zein da sailak duen hezkuntza-planifikazioa ikastetxe horretako kide ziren ikasleentzat?
5. Eta zein da sailak duen irtenbidea ikastetxe horretako kide ziren profesionalentzat?
6. Ba al daki sailak ikastetxe honetako eraikin eta azpiegiturekin zer gertatuko den?

Gasteizen, 2025eko urtarrilaren 9an

**Ikoitz Arrese Otegi, EH Bildu taldeko legebiltzarkidea eta bozeramaileordea**

\*\*\*

***Osasun Sailak San José klinikarekin izandako harremanari buruz*** (Izapidetzeko onartzea)  
(13/10.05.03.00239)

Mahaiak, 2025eko urtarrilaren 14ko bileran, erabaki du izapidetzeko onartzea, idatziz erantzuteko, Rebeka Ubera Aranzeta EH Bildu taldeko legebiltzarkideak Osasuneko sailburuari egindako GALDERA, eta agindu du Eusko Jaurlaritzari bidal dakiola eta Eusko Legebiltzarraren Aldizkari Ofizialean argitarara dadila.

**Eusko Legebiltzarreko lehendakaria  
Bakartxo Tejeria Otermin**

escrito la PREGUNTA formulada a la consejera de Educación por D. Ikoitz Arrese Otegi, parlamentario del grupo EH Bildu, y ordena su remisión al Gobierno Vasco y su publicación en el Boletín Oficial del Parlamento Vasco.

**La presidenta del Parlamento Vasco  
Bakartxo Tejeria Otermin**

Justificación

Hemos sabido por los medios de comunicación que el centro educativo Scientia de Bilbao va a dejar de dar la oferta educativa que venía ofreciendo. Por ello, al amparo del vigente Reglamento, formulo las siguientes preguntas a la consejera de Educación, para su respuesta por escrito.

**PREGUNTAS**

1. ¿Por qué irregularidad concreta decidió el Departamento de Educación retirar el concierto educativo al centro educativo Scientia de Bilbao?
2. ¿Por qué motivos cerrará las puertas el centro mencionado tras recibir financiación pública hasta el año 2024?
3. ¿Cuándo conoció el departamento esta decisión del centro?
4. Consciente de esta situación, ¿cuál es la planificación educativa del departamento para el alumnado que formaba parte de ese centro?
5. ¿Y cuál es la solución que tiene el departamento para los y las profesionales que formaban parte de ese centro?
6. ¿Sabe el departamento qué va a ocurrir con los edificios e infraestructuras de este centro?

Vitoria, 9 de enero de 2025

**Ikoitz Arrese Otegi, parlamentario y portavoz suplente del grupo EH Bildu**

\*\*\*

***Sobre la relación del Departamento de Salud con la clínica San José*** (Admisión a trámite)  
(13/10.05.03.00239)

La Mesa, en su reunión del día 14 de enero de 2025, acuerda admitir a trámite para su respuesta por escrito la PREGUNTA formulada al consejero de Salud por D.ª Rebeka Ubera Aranzeta, parlamentaria del grupo EH Bildu, y ordena su remisión al Gobierno Vasco y su publicación en el Boletín Oficial del Parlamento Vasco.

**La presidenta del Parlamento Vasco  
Bakartxo Tejeria Otermin**





## Zioa

Legegintzaldi desberdinetan talde parlamentario desberdinek Osasun Sailari egindako informazio-eskaeren ondorioz, neurri batean behintzat jakin dezakegu Osasun Sailak osasun-sistema pribatuko enpresa desberdinekin izandako harremana. Baita San José klinikarekin ere.

2025eko urtarilaren 8an, komunikabideen bidez jakin genuen Sagardui Osasuneko sailburu ohia kontratatua izan dela Vithas-San José klinikan. Ondorioz, Osasun Sailak urteetan Legebiltzarrera bidalitako datuak aztertzeko, ikusi dugu gutxienez 2004tik 2019ra San José klinikak harremana izan duela Osasun Sailarekin, salbuespena Sagarduiaren legegintzaldia izanik, 2020tik 2024ra. Ondorengo kontzertazioa egin zuen, hots, finantzaketa helarazi izan dio urteetan Osasun Sailak San José klinikari, osasun-prestazioen ordainetan. Zehazki: 2004an, 30.748 €; 2005ean, 618.083 €; 2006an, 554.820 €; 2007an, 703.823 €; 2008an, 695.642 €; 2009an, 1.059.433 €; 2010ean, 495.282 €; 2011n, 456.874 €; 2012an, 260.268 €; 2013an, 70.706 €; 2014an, 49.598 €; 2015ean, 41.576 €; 2016an, 124.813 €; 2017an, 215.912 €; 2018an, 113.934 €; 2019an, 102.313 €. 2021ean eta 2022an, ez dago kontzertaziorik.

Hori dela eta, komenigarria ikusi dugu zenbait argibide eskatzea.

## IDATZIZ ERANTZUTEKO GALDERAK

- Zein osasun-prestazio burutzeko kontzertatu izan zuen urteetan Osasun Sailak San José klinika?
- COVID-19aren pandemia ostean, kontzertazioak gora egin izan zuen garaian, zergatik Osasun Sailak erabaki zuen San José klinikarekin kontzertazioa etetea? Ordura arte San José klinikak Osakidetza-erantzutza egiten zituen osasun-prestazioak zein enpresatarara bideratu ziren eta, ondorioz, zein enpresari igo zitzaion kontzertazioa? Eta zenbatekoa izan zen igoera?
- Osasun Sailak 2021. urtetik 2024. urtera, San José klinikarekin bestelako harreman ekonomiko bat izan du, ordura artekoa izan ez zena? Erantzuna baiezkoa bada, zein? Eta zenbateko finantzaketa helarazi izan dio Osasun Sailak San José klinikari, eta zein kontzeptutan?
- COVID-19 pandemian, Osasun Sailak San José klinikarekin osasun-zerbitzu batzuk kontzertatu zituen? Erantzuna baiezkoa bada, zeintzuk? Eta zein urtetan?

## Justificación

Como consecuencia de las solicitudes de información formuladas por los diferentes grupos parlamentarios en las diferentes legislaturas al Departamento de Salud, podemos conocer, al menos en cierta medida, la relación del Departamento de Salud con las diferentes empresas del sistema sanitario privado. También con la clínica San José.

El 8 de enero de 2025, supimos por los medios de comunicación que la exconsejera de Salud Sagardui ha sido contratada por la clínica Vithas-San José. En consecuencia, analizando los datos remitidos por el Departamento de Salud al Parlamento en estos años, hemos visto que, al menos entre 2004 y 2019, la clínica San José ha tenido una relación con el Departamento de Salud, con la excepción de la legislatura de Sagardui, desde 2020 hasta 2024. El Departamento de Salud hizo la siguiente concertación, es decir, ha hecho llegar durante estos años a la clínica San José una financiación a cambio de prestaciones sanitarias. Concretamente: en 2004, 30.748 €; en 2005, 618.083 €; en 2006, 554.820 €; en 2007, 703.823 €; en 2008, 695.642 €; en 2009, 1.059.433 €; en 2010, 495.282 €; en 2011, 456.874 €; en 2012, 260.268 €; en 2013, 70.706 €; en 2014, 49.598 €; en 2015, 41.576 €; en 2016, 124.813 €; en 2017, 215.912 €; en 2018, 113.934 €; en 2019, 102.313 €. En 2021 y 2022 no hay concertación.

Por ello, consideramos conveniente solicitar algunas aclaraciones.

## PREGUNTAS PARA SU RESPUESTA POR ESCRITO

- ¿Para realizar qué prestación sanitaria concertó durante años el Departamento de Salud con la clínica San José?
- Tras la pandemia de la COVID-19, en un momento de aumento de la concertación, ¿por qué decidió el Departamento de Salud suspender la concertación con la clínica San José? ¿A qué empresa se derivaron las prestaciones sanitarias que hasta entonces realizaba la clínica San José para Osakidetza y, en consecuencia, se le incrementó la concertación? ¿Y cuánto fue el incremento?
- ¿Ha mantenido el Departamento de Salud entre los años 2021 y 2024 una relación económica diferente con la clínica San José distinta a la mantenida hasta entonces? En caso afirmativo, ¿cuál? ¿Cuál es la cuantía de la financiación que ha hecho llegar el Departamento de Salud a la clínica San José y bajo qué conceptos?
- Durante la pandemia COVID-19, ¿el Departamento de Salud concertó algunos servicios sanitarios con la clínica San José? En caso afirmativo, ¿cuáles? ¿Y en qué años?



- Jaurlaritzako saila ez den beste sailen batek kontratu-harremanik edota bestelakorik izan du 2020. eta 2024. urteen bitartean? Erantzuna baiezkoa bada, zein?
- Osasun Sailak badu edota bazuen asmorik San José klinikarekin kontzerturik edo bestelako harreman-eredurik gauzatzeko 2025. urtean?

Gasteizen, 2025eko urtarrilaren 9an

**Rebeka Ubera Aranzeta, EH Bildu taldeko legebiltzarkidea eta bozeramaileordea**

\*\*\*

***En relación con la escasa ejecución de las ayudas a empresas enmarcadas en el plan Kontzilia***  
(Admisión a trámite)  
(13/10.05.03.00240)

La Mesa, en su reunión del día 14 de enero de 2025, acuerda admitir a trámite para su respuesta por escrito la PREGUNTA formulada a la consejera de Bienestar, Juventud y Reto Demográfico por D.ª Laura Garrido Knörr, parlamentaria del grupo Popular Vasco, y ordena su remisión al Gobierno Vasco y su publicación en el Boletín Oficial del Parlamento Vasco.

**La presidenta del Parlamento Vasco  
Bakartxo Tejeria Otermin**

A la Mesa del Parlamento Vasco

Laura Garrido Knörr, portavoz y parlamentaria del grupo Popular Vasco, por medio del presente escrito y al amparo del vigente Reglamento, formula pregunta para su respuesta por escrito dirigida a la consejera del Bienestar, Juventud y Reto Demográfico, en relación con la escasa ejecución de las ayudas a empresas enmarcadas en el plan Kontzilia.

Justificación

El Departamento de Bienestar, Juventud y Reto Demográfico ofrece a través del plan Kontzilia una línea de ayudas a empresas para la contratación de una consultora para hacer un diagnóstico y un plan de conciliación.

En respuesta a la solicitud de información 13/10/07/02/00565, el Departamento de Bienestar, Juventud y Reto Demográfico facilitó la siguiente información: en el año 2024 el presupuesto total para la citada línea de ayudas era de 420.000 euros. Se recibieron 18 solicitudes y, a su vez, se destinaron las ayudas a 18 beneficiarios. El gasto total fue de 124.474,70 euros, por lo que se ejecutó el 29 % del total presupuestado.

- ¿Ha tenido algún otro departamento distinto del Gobierno alguna relación contractual o de otro tipo entre 2020 y 2024? En caso afirmativo, ¿cuál?

- ¿Tiene o tenía intención el Departamento de Salud de realizar conciertos u otros modelos de relación con la clínica San José en el año 2025?

Vitoria, 9 de enero de 2025

**Rebeka Ubera Aranzeta, parlamentaria y portavoz suplente del grupo EH Bildu**

\*\*\*

***Kontzilia planaren barruan dauden enpresentzako laguntzak gutxi gauzatzearen inguruan*** (Izapidetzeko onartzea)  
(13/10.05.03.00240)

Mahaiak, 2025eko urtarrilaren 14ko bileran, erabaki du izapidetzeko onartzea, idatziz erantzuteko, Laura Garrido Knörr Euskal Talde Popularreko legebiltzarkideak Ongizate, Gazteria eta Erronka Demografikoaren sailburuari egindako GALDERA, eta agindu du Eusko Jaurlaritzari bidal dakiola eta Eusko Legebiltzarren Aldizkari Ofizialean argitara dadila.

**Eusko Legebiltzarreko lehendakaria  
Bakartxo Tejeria Otermin**

Eusko Legebiltzarreko Mahaiari

Laura Garrido Knörr Euskal Talde Popularreko bozeramaile eta legebiltzarkideak, idazki honen bidez eta indarrean dagoen Erregelamenduaren babesean, idatziz erantzuteko galdera hau egiten dio Ongizate, Gazteria eta Erronka Demografikoaren sailburuari, Kontzilia planaren barruan dauden enpresentzako laguntzak gutxi gauzatzearen inguruan.

Zioa

Ongizate, Gazteria eta Erronka Demografikoaren Sailak, Kontzilia planaren bidez, enpresentzako laguntza-lerro bat eskaintzen du, aholkularitza-enpresa bat kontrata dezaten diagnostikoa eta kontziliazio-plana egiteko.

13/10/07/02/00565 informazio-eskaerari emandako erantzunean, Ongizate, Gazteria eta Erronka Demografikoaren Sailak honako informazio hau eman zuen: 2024an, laguntza-lerro horretarako aurrekontua 420.000 eurokoa zen guztira. 18 eskaera jaso ziren, eta laguntzak 18 onuraduni bideratu zitzaizkien. Gastua, guztira, 124.474,70 eurokoa izan zen; beraz, aurrekontuan guztira jasotakoaren % 29 gauzatu zen.



Por todo ello solicitamos respuesta a las siguientes cuestiones:

1. ¿Cuáles son las razones que explican la baja ejecución respecto a lo presupuestado de la línea de ayudas a empresas para la contratación de una consultora para hacer un diagnóstico y un plan de conciliación?
2. A la vista de los resultados, ¿se plantea el Departamento de Bienestar, Juventud y Reto Demográfico adoptar alguna medida? Especificar, en su caso, las medidas concretas.

En Vitoria-Gasteiz, a 10 de enero de 2025

**Laura Garrido Knörr, portavoz del grupo Popular Vasco**

\*\*\*

***Relativa al acuerdo alcanzado sobre la actualización de los datos sobre las listas de espera en Osakidetza y su remisión al Parlamento***  
(Admisión a trámite)  
(13/10.05.03.00241)

La Mesa, en su reunión del día 14 de enero de 2025, acuerda admitir a trámite para su respuesta por escrito la PREGUNTA formulada al consejero de Salud por D.ª Laura Garrido Knörr, parlamentaria del grupo Popular Vasco, y ordena su remisión al Gobierno Vasco y su publicación en el Boletín Oficial del Parlamento Vasco.

**La presidenta del Parlamento Vasco  
Bakartxo Tejeria Otermin**

A la Mesa del Parlamento Vasco

